




# GAZTELEKUA 2022-2023 IKASTURTEA

GAZTERIA SUSPERTZAILEA

# AURKIBIDEA

- Sarrera
- Printzipioak
- Araudia
- Orduategia



# SARRERA

Gazteria saila tokian-tokiko haur, nerabe eta gazteei eskaintza iraunkorra eskainiaz, haien haurtzaro eta gaztetasunaz gozatzeko aukera egonkorra eta etengabea bermatzeaz arduratzen da.

Hori dela-eta, zerbitzuan haur, nerabe eta gazteei, osotasunean, arreta eskaini nahi da eskaintza iraunkor eta koherentea izan da. Honekin batera, partaidetzaren aldeko apustua egiten da eta hurbiltasuneko zerbitzuak eskaini nahi da.

Norbanako mailako, talde mailako eta komunitate mailako xedeak izanik:

- ♦ Norbanako mailan. Autonomia sustatzea: nortasun pertsonalaren garapena eta gizartean toki aktiboa izateko gaitasuna bermatzea; Haur, nerabe eta gazteengan eskumenak garatzea autonomia pertsonalaren eta kolektiboaren mailak lortzeko, aukera berdintasuna bermatuz.
- ♦ Talde mailan. Konpromisoa eta jarrera kritikoa bultzatzea partaidetza kolektiborako sentimendua garatuz, berdinen arteko erlazio eraiki, sustatu eta garatzea.
- ♦ Komunitate mailan. Aldaketa-prozesuetan inplikatzeko gaitasuna landu, horrela herriko parte-hartzea duintzea, eremu publikoarekiko kezka sortaraztea eta udalerrian haur, nerabe eta gazteen errealitatea ezagutaraztea eta hauek herriko eragile gisa ikusgarri egitea.

Gazteku hau lau printzipioetan oinarritzen da: nerabeen aniztasuna, partaidetzan eta bizikidetzan. Hiru balore horiek elkarreagiten dute, hau da, kontzeptu bakoitza ezin dugu modu isolatu batean aztertu.

## 1. Aniztasuna

Espazio honetan adin aniztasuna izateaz gain, kultur aniztasuna ere kontuan hartuko da. Hori horrela, berdinen arteko harremanak bermatuko dira, hau da, inor ez da bestek baino gehiago edo gutxiago izango. Bakoitza modu indibidualean onartuko da. Honekin lotuta, norbanakoaren zaintzak garrantzia handia izango du. Nerabe bakoitzari barrutik irteten zaion hori aurrera eramatea baloratuko da. Adibidez, marrazkia / diseinua / eraikuntza / artelana / ... egitean, ondo dago? galdera saihesten saiatuko gara. Beste modu batean esanda, inoren onarpenik behar ez dugula bultzatzen saiatuko gara. Azken ezaugarri honekin, autonomia aipatu beharra dago, bakoitzak aske sentitu behar du sentitzen duena egiteko.

## 2. Partaidetza.

Nerabeen partaidetza sustatzeko, nerabe aktiboak bideratzea izango litzateke gaztekuaren printzipioetako bat. Esate baterako, gaztekuaren ekintza desberdinak antolatuz eta hauetan parte-hartuz lortuko genuke. Ekintza batzuk, gaztekuaren izango dira; beste batzuk, aldiz, herriari begira ere izan daitezke. Modu horretan, komunitatearekin (eragile, elkarte, talde... ezberdinekin) harremana bermatuko genuke. Hori kontuan hartuz, denon arteko talde-lana ezinbestekoa da.

## 3. Bizikideteza.

Aniztasunean aipatu bezala, norbanakoaren zaintza azpimarratzen dugu baina horretaz gain, ingurukoaren zaintza (pertsonek, ingurumena, materiala...) ere azpimarratu behar dugu. Horretarako, oinarritzko baloreak kontuan hartzea oso garrantzitsua da, hau da, enpatia, errespetua eta komunikazio egokia bermatzea.

## 4. Euskararen normalizazioa.

Gaztekuaren beste printzipioetako bat euskararen normalizazioa izango litzateke, hau da, gaztekuaren erabiltzaileei euskarak duen garrantzia transmititzea. Horretarako, gaztekuaren euskara eta euskal kultura sustatzea ezinbestekoa izango da.

# ARAUDIA

Anoetako gaztelekua zabalik dago 10-16 urte bitarteko (LH5-DBH4) nerabeentzako eta doan eskaintzen ditu informazioa, kultura eta aisialdia eskuratzeko zerbitzuak. Gaztelekuko zerbitzua publikoa da eta bertan arauak betetzea guztion betebeharra da.

Araudi honen osaketa eta jarraipena Anoetako Udaleko Gazteria batzordearen eskumena da, eta gaztelekuko hezitzaileak du betearazteko ardura.

Araudi hau, Anoetako liburutegiko araudian oinarrituz egin da. Hortaz, GAZTELEKUKO ERABILTZAILEEK ARAUDI HAU BETETZEA BEHARREZKOA DA:

- Erabiltzaileek errespetuzko jarrera izango dute hezitzailearekin eta gainontzeko erabiltzaileekin.
- Gaztelekuko instalazioak, ekipoak, fondoak eta jabetzak kaltetu gabe eta behar bezala erabiliko dira.
- Hitz egiteko bolumena kontrolatu egingo da, eta bertan poliki eta patxadaz ibiliko dira. Mugimendua behar izanez gero, beste espazio batzuk eskainiko zaizkie. Kanpo espazioa esate baterako.
- Animaliak ezinduei laguntzeko direnean soilik sartuko dira.
- Bizikletak eta patineteak eraikinetik kanpo utziko dira.
- Patinak, baloiak edo antzekoak gaztelekuko sarreran utziko dira. Bertan, hauei bideratutako apalak aurkituko ditugu.

## OHARRAK:

- Erabiltzaileak adin txikikoak direnez, erabiltzaileen erantzuleak beren guraso edo tutoreak dira. Behar izanez gero, erabiltzaileek erreklamazio-orriak eska ditzakete gaztelekuan.
- Nahiz eta araudiaren oinarriak hauek izan, nerabeekin asanbladaren bitartez osatuko ditugu.

## ARAUDIA HAUSTEAREN ONDORIOAK ETA PROZEDURAK

Jarrera eta jokabideari dagokienez:

- ♦ Arau-haustea edota jokabide okerra behin baino gehiagotan izanez gero, arau haustea burututako nerabeak eta bere tutoreak onarpen orri bat sinatu beharko dute. Bertan, nerabe horren jarrera nolakoa izan den azalduta egongo da. Sinatu ondoren, nerabe eta tutoreak, biak batera, hezitzaileari entregatu beharko diote onarpen orria.
- ♦ Onarpen orriaren ostean, jarrera edota jokabideak aldatzen ez badira, nerabea gaztelekutik kanporatua izango da 3 hilabeteetarako eta bere tutoreari deituko zaioegoeraren berri emateko.
- ♦ Azkenik, aurreko egoera pasaz gero eta jarrera edota jokabideak aldatzen ez badira, kurtso osorako kaleratua izango da eta tutoreari deituko zaio egoeraren berri emateko.

Ondasun higigarri eta higiezinei dagokienez:

- ♦ Erabiltzaileak altzariak, liburuak, kristalak edota bestelako ondasun materialak kaltetuko balitu, kalte-ordainen kargu egin beharko du.

# ORDUTEGIA

Nerabeekin arreta zuzena gaztelekuan izango da. Ideala izango litzateke gaztelekura etorri nahi duen nerabeak nahi duen ordutegian etortzea baina, hezitzaile bakarra egongo denez eta kopuruak izugarriak izan daitezkeenez, izen-emateen bitartez egingo dugu eta maila bakoitzaren arabera ordutegi ezberdinak antolatuko ditugu. Gazteleku barruko **aforoa 18 pertsonekoa** da, hortaz kopuru hau bete arte sartzeko aukera izango dute bertara.

Nerabeen beharrak kontuan izanik, ondorengo ordutegia eskainiko diegu. Hezitzaileak eta gazteek aldatzeko beharra ikusiko balute, aldatzeko aukera egonaz.

| ASTEARTEA             | ASTEAZKENA            | OSTEGUNA             | OSTIRALA            | LARUNABTA           |
|-----------------------|-----------------------|----------------------|---------------------|---------------------|
| 17:00-18:30<br>LH5-6  | 17:00-18:30<br>DBH1-2 | 17:00-18:30<br>LH5-6 | 17:00-18:30<br>DBH1 | 16:00-18:00<br>DBH2 |
| 18:30-20:00<br>DBH1-2 | 18:30-20:00<br>DBH3   | 18:30-20:00<br>DBH4  | 18:30-20:00<br>DBH3 | 18:00-20:00<br>DBH4 |

## KONTAKTURAKO

- Telefono zenbakia: 688 76 13 43
- E-mail a: [nahia@loiri.eus](mailto:nahia@loiri.eus)



**2022-2023**  
**IKASTURTEA**